

JARRAI DEZAGUN GURE BIDAIAREKIN AFRIKAKO KOSTALDEAN ZEHAR. ZORIONEZ, AFRIKA OSO HANDIA BAITA, ETA PIXKA BAT BEHERAGO JETSITA IKUS DEZAKEGU GHANA. BERTAKO ANIMALIAK, FAUNA ETA FLORA IZUGARRIAGATIK EZAGUNA DEN HERRIALDEA.

GHANAKOA DUGU “*TUETUE*” ABESTIA, MOLDAKETA ASKO DAUZKAN ABESTAI, BAINO GURE KASUAN, KANON EDER BAT EGITEKO ERABILIKO DUGUNA ETA GORPUTZ PERKUSIOAREKIN LAGUNTZEA LORTZEN BALDIN BADUGU ZORAGARRIA IZANGO DENA. KANON HORI BI TALDETAN EGITEA PROPOSATUKO DIGUTE, BAINA AKASO ZUEK HIRUTQAN ERE EGIN DEZAKEZUE, EZ DAKIT. “*TUE TUE BARIMA TUE TUE*” ABESTI HONEK DAUKAN BEREZITASUNA SENTITZEN DUT, SENTITZEN DUT ESATEN DUELA DA. HARA, ZEIN BEREZIA.

GOAZEN ELKARREKIN IKAS DEZAGUN:

(ABESTEN HASTEN DA)

“*TUE TUE BARIMA TUE TUE*”.

GHANAKO ABESTI ZORAGARRI HAU, MODU ASKOTAN EGIN DAITEKE. GUK GAUR, KANON BAT EGITEN SAIATUKO GARA. HORRETARAKO, ABESTIAREN HIRU ZATIAK IKASIKO DITUGU, ETA AHAL BALDIN BADUGU GORPUTZ PERKUSIO PIXKAT ERE SARTUKO DIOGU. LEHENENGO ZATIAK HORRELA DIO, NIK PARE BAT ALDIZ EGINGO DUT ETA HIRUGARRENEAN ZUEK EGITERA GONBIDATUKO DIZUET.

(ABESTEN HASTEN DA GORPUTZ PERKUSIOAREKIN)

“*TUE TUE, BARIMA, TUE TUE*” (X4) ZUEK ERE BAI! “*TUE TUE, BARIMA, TUE TUE*” BIGARREN ZATIAK DIO

“*ABOFRA BA AMA DAWA DAWA TUE TUE*” AKASO HORI DA ESATEKO ZAILENA?

(ABESTEN HASTEN DA)

“*ABOFRA BA AMA DAWA DAWA TUE TUE*” (X2) HAU PIXKAT ZAILAGOA DA, “*ABOFRA BA AMA DAWA DAWA TUE TUE*” (X2).

ELKARREKIN EGIN DEZAGUN “*ABOFRA BA AMA DAWA DAWA TUE TUE*” (X2).

HIRUGARRENA ERREXAGOA DA.

(ABESTEN HASTEN DA)

“*BARIMA TUE TUE*” (X4)

HIRU ZATIAK HORRELAXE DIRA:

(ABESTEN HASTEN DA)

Transkripzioa: **GHANA**

"TUE TUE, BARIMA, TUE TUE" (X2), "ABOFRA BA AMA DAWA DAWA TUE TUE" (X2) "BARIMA TUE TUE" (X2)

EGIN DEZAGUN ORAIN GOITIK BEHERA ETA NAHI ETA AHAL BALDIN BADUGU BI TALDETAN EGIN DEZAKEGU. LEHENENGO TALDEA HASIKO DA ETA LEHENENGO TALDEA BIGARRENEAN EGOTEAN, BIGARREN TALDEA HASIKO DA LEHENENGOTIK. ZE EROMENA! JAJAJA. PROBA DEZAGUN! PREST?

BAT, BI, HIRU, LAU...

(ABESTEN HASTEN DA)

"TUE TUE, BARIMA, TUE TUE" (X2), "ABOFRA BA AMA DAWA DAWA TUE TUE" (X2) "BARIMA TUE TUE" (X2) (BI ALDIZ EREPIKATZEN DA.)

ZER MODUZ MOLDATU ZARETE? EGIN DEZAGUN ORAIN BI TALDETAN EDO AHAL DEN BEZELA BEHINTZAT.

ORAIN ZUEN TXANDA DA!

(ABESTEN HASTEN DA)

*-TUE TUE, BARIMA TUE TUE
ABOFRA BA AMA DAWA DAWA TUE TUE,
BARIMA TUE TUE (BI AHOTSETARA)*